

BBVA FUNDAZIOA: FISIKAKO IKERTZAILEENTZAKO LEONARDO BEKEN 2023

Proiektuen iraupena:

Proiektuek 12 eta 18 hilabete bitarteko iraupena izango dute.

Finantzaketa:

Berrogei mila (40.000) eurorainoko 7 laguntza emango dira.

Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:

- Proposatutako proiektua UPV/EHU n egin behar bada, eskatzaileak funtzionario, estatutu edo kontratu lotura izan beharko du UPV/EHUrekin eskaera aurkeztu duenetik proiektua gauzatu arte.
- Espainiar nazionalitatea edo egoitza Espainian izatea, edo bizileku iraunkorra edo iraupen luzekoa Espainian duten beste herrialde batzuetako nazionalak izatea.
- Karreraren erdialdean egotea. Ikertzaileen kasuan, doktorego ondoko etaparen eta irakasle titular edo baliokidearen mailaren artean egotea.
- 30 eta 45 urte bitartean izatea.
- Deialdian zehazten diren bateraezintasunik ez izatea.

Aurkeztu beharreko dokumentuak:

- Aplikazio elektronikoa erabiliz betetako eskaera orria
- Nabarmendutako bost lan edo lagin
- Bi aipamen gutun
- CV laburtua, azken 5 urteak bereziki zehaztuta (erderaz ala ingelera)
- Ikerketa ibilbidea eta ibilbide profesionala zein artistikoa deskribatuz kontaketa pertsonal bat
- Proiektuaren zientzi memoria
- Aurrekontua
- Dagozkion etikako txostenak, behar izanez gero
- NANaren, atzerritarren identifikazio zenbakiaren (AIZ) edo pasaportearen fotokopia
- Bizileku ziurtagiria edo baimena, bizileku iraunkorreko txartela edo atzerritarren nortasun agiria, betiere indarrean direlarik, Europar Batasuneko ez den herri bateko kideentzat.
- Gutxienez 3 urte Espainian bizi izan zarenaren egiaztagiria, Europar Batasuneko den beste herri bateko kideentzat.

Aurrekontua prestatzeko jarraibideak:

UPV/EHUko ikertzaileek aurkeztutako eskaerak zehar **kostuen %18a** jaso beharko dute aurrekontuan.

O HAR GARRANTZITSUA: 2008ko apirilaren 29ko Erabakian –horren bidez agintzen da UPV/EHUko Estatutuen 315. artikulua garapen arautegia argitaratzeko– jasotakoa aplikatuz, irakasle-ikertzaileek ezin izango dute nominan ordainsaririk jaso deialdi honen bitartez.

Eskaerak aurkezteko epea:

2022ko ekainaren 28ko 18:00ak arte

BBVA Fundazioaren webgunean dagoen aplikazioaren bidez egingo dira:
www.fbbva.es/convocatorias/

Eskaerak UPV/EHUn aurkezteko prozedura:

Haien proiektua UPV/EHUn egin behar duten eskatzaileek beren eskaeraren aurkezpenaren berri eman beharko dute helbide honetara bidaliz: convocatorias.dgi@ehu.eus. Mezuari dokumentu guztiak erantsi beharko dizkiote Ikerketaren arloko Errektoreordetzan artxiba daitez.

O HAR GARRANTZITSUA: Ikertzaile nagusiak aurkeztu beharko du eskaera, dagokion epean eta moduan, Fundazioaren aplikazioa erabiliz.

UPV/EHUren datuak eskaera orria betetzeko:

Hauek dira erakundearen (UPV/EHU) datuak eskaera betetzeko:

- Ordezkarri legala: Inmaculada Arostegui Madariaga
- Kargua: Ikerketaren arloko errektoreordea
- IFK: Q-48/18001-B
- Helbide soziala: Sarriena auzoa z/g
- Posta kodea: 48940
- Herria: Leioa

UPV/EHUrekiko harremana:

- E-maila: convocatorias.dgi@ehu.eus

BBVA Fundazioarekiko harremana:

- E-maila: becas-leonardo@fbbva.es

Informazio gehiago:

<https://www.redleonardo.es/becas/becas-leonardo-investigadores-fisica-2023/>